

IRU OLERKARI IL YAKUZ

Lendik be lar oparotsu ez genduan olerki-saila murriztu egin dausku eriotzak.

Xabier Lazkoz, Ziga'ko erretore apala eroan euskun lenengo. Urteetan gexorik egona zan arren, ez gendun uste orren arin aldenduko yakunik. Apaiz ona, erriak ziñez maite ebana. Artista be ba-genduan, oso leuna. Sarri szaldu izan ditu OLERTI'K aren lan txukunak, bertso yaioetan biribil. Eta langille bat bage geratzean, benetako tamal-miña sentidu bear naitaez. Biotz oarkor baten jabe zan, eta inguruko edozerk zauska goxoz ipiñi oi eutson barnea.

Bigarrenu be, Bilbao'tar Alesander, «Maruri'tar Erramun», naiz-ta uler-eziñak iñarrosia, antzekoa gendun. Kantauri itxas ertzean, Armintza'n bizi zan aspalditik, baketsu ta langiile. Eder yakozan albo errietako jai ta jolasaldiak, eta a erromeri-zale ta ni izlari, sarri alkar surkitu ta autu luzeak alkarrekin eukiak gara. Barnean erabilen kezkaren garratza azaltzea be, atsegin yakon.

Olerkari zan. Iru liburu itxi dauskuz: *Biotza abeslari* (1927). *Lilitxingar* (1928 ta 1965) ta azken orduko *Txori-egadak* (1965). Orreitzaz gañera ba-ditu, ta naikoa, OLERTI'n argitara emonak, eta argitara bageak be. Etzan geldi egotea, ta tarteka-marteka biotza estutuz zerion ezti goxoa liburuetan itxi euskun, erleak abaraskan legez.

Irugarrina Arrutza'tar Mikel dogu, gizon on, artez eta euskaltzale ausarta. Lengoan, maiatzaren 12'an, Bilbao'ra nintzanean, iragarri eustien aren il-barri samiña. Geixo samar ebillena ba-nekian, baiña ez neban uste Jaunak orren arin eroango euskunik. Lagun miñari azken agurra egiteko asmuz ara nintzanean, ainbat adiskide ta eza-gun ziran ari nik lez azken agerraldia egiten. Danok genduan asmo bat, danok genkian zertara giñoazan. Asko ziran arpegia biurtzen ebenak begiak beera zeroien malkoa ez erakustearren. Lurra emonik, an Derio'n gel-ditzen da gure adiskide maite ta euskaltzale eredugarrriaren gorpua.

Gogoa, barriz, betiko argitara egaztua. Jainkoak emon eutsan, bai, bere bizitza ederrez irabazi eban zeru atsegintsua. Goian bego aintzatsu ta atsegiñez; goian begoz iru olerkariok, betiko argiz koroaturik, ainbat euskaltzale ta euskal olerkariz inguratuta. Beitez gure bitarteko, euskal arloan darabilgun asmo bikaiñean gu indartu ta azkortuaz.

A. O.